# A1 MAILA

## 1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Hauek díra níre etxeko ohíturak

Jarri binaka eta egin galdera hauek zure lagunari.



**Zure etxean noiz egiten dira erosketak?**

- D Astean behin
- D Egunero
- D la egunero

**Produktu hauetatik zein dira behar-beharrezkoak , zure etxean?**

| | | |
|---|---|---|
| D Txokolatea<br>D Zerealak<br>D Ozpina eta olioa | D Gazta<br>D Ogia<br>D Arrautzak | D Arraina<br>D Barazkiak (tipula,letxuga,tomatea..<br>D Esnea<br>D Besterik: ......................... |

*. Zure etxean txokolatea egoten da normalean?*
*• Bai, nire etxean beti egoten da.*
*.· Eta non gordetzen duzue? Guk beti hozkailuan.*

## 2- ENTZUN BITARTEAN

### 2.1 Ditxosozko erosketak!



Entzun audioaren lehen bi zatiak. Aukeratu erantzun zuzena eta konparatu emandako erantzunak.

**Zer gertatzen da erosketekin?**

- O Alexek erosketak egin behar ditu
- O Aste osoan ez dituzte erosketak egin BAI
- O Amaiak egunero egin nahi ditu.

### 2.2 Zerrenda egiten

orain entzun berriro, baina audio osoa. Nahi baduzu, entzun bi aldiz. 6 baieztapen hauetatik 3 gezurrak dira. Ea identifikatzen dituzun:

- O Josuri eta Amaiari beti erosketak egitea tokatzen zaie.
- O Alexek eta Amaiak mueslia hartzen dute.
- O Txokolatea Alexen kapritxoa da, eta ez dute erosiko.
- O Komuneko papera ere falta da.
- O Olioa, ozpina eta gatza ere falta zaie.
- O Amaiari ez zaio gustatzen erosketak Josurekin egitea.

## 3. ENTZUN ONDOREN

### 3.1 Jarri arreta hizkuntzan

**Agindu bat eman, edo mesedea eskatzeko, aukera hauek ditugu:**

- **Apuntatu, mesedez! / Itxoin (ezazu) pixka bat (Aditza, aginteran)**
- **Olioak eta, begiratuko dituzu, mesedez? (aditza geroaldian)**

**Galdetzeko edo ukatzeko. Ikusi adibideak:**

- **Armairuan, kalabazinik badago? / Hozkailuan geratzen da porrurik?**
- **Sukaldean, ez dago gatzik**

**-rik : Aditza nola erabiliko dugu beti?**

- ❑ **Beti pluralean**
- ❑ **Batzuetan singularrean**
- ❑ **Beti singularrean**

Begiratu lehen ariketan egindakoa. Zer falta da zure etxean? Prestatu zerrenda. Bikoteka galdetu zer falta den zuen etxeetan

*tomatea, arrautzak, esnea, tipula, baratxuria, olioa, sagarrak...*

o *Armairuan, galletarik badago?*

+ *Ez. Ez dago galletarik*

o *Eta hozkailuan jogurtik bada?*

o *Ezta ere.*

3.2 Gaur afari berezia!

Lagun artean afari berezia antolatu duzue. Jarri binaka eta aukeratu errezeta bat.



*Oilasko-entsalada*



*Kalabazin-krema*



*lntxaur saltsa*

Eta errezeta hauek egiteko zein produktu behar dituzue? Aukeratu hauetatik garrantzitsuenak. Beste osagairik behar baduzue, idatzi.

| | | |
|---|---|---|
| O Oliba olioa<br>O Letxuga<br>O Ozpina<br>O Oilaskoa | O Baratxuria *1* tipulina<br>O Gatza<br>O Esnegaina<br>O Piperra | O Azukrea /esnea<br>O Limoia<br>O Kanela-zotza<br>O Tomatea |

Binaka zuen etxean zer duzuen begiratu eta erabaki zer falta duzuen hauetako errezeta bat prestatzeko Egin galderak zure lagunari eta bion artean sortu antzeko elkarrizketa !aburra.

o *Zer falta da, porrusalda egiteko? Begiratu hozkailuan, mesedez!*

*Ba, kalabazina badago, baina ez dago tipulinik.*

o *Ondo, hortaz, aptuntatu, tipulina. Ah, eta oliorik ere ez dago.*

:i ***Orain begiratuko duzu armairuan, mesedez?***

o *Zerealak, galletak, .... Ez dago gatzik! Gatza ere apuntatu, mesedez!*

Adierazi denen aurrean zein errezeta aukeratu duzuen. eta hori egiteko zer duzuen eta zer falta duzuen. Ikus eredua:



**Zer egingo duzu? Zer dago eta zer ez?**

*Guk afari berezirako kalabazin-krema egingo dugu eta hori egiteko olioa* eta *gatza baditugu, baina ez dugu baratxuririk eta piperrik. Hortaz, gure erosketa-zerrendan hauek apuntatu ditugu:.....*

Ondoren, joan zaitezte dendara eta behar dituzuenak erosi.